

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure produktua umeak eramateko kotxe bat da. Beste kotxeengatik bereizten duena umeak negar egiten duenean automatikoki kulunkatzen dela eta musika lasaigarria jartzen duela da. Horrela, gurasoen lana murrizten da.

Gure diseinua kotxe tradizionalen oso antzekoa da (alboko argazkia), gurea, ordea, kotxearen aurrealdean soinu sentsore bat dauka, 20-80 deziobelioekin (ume baten negarra) aktibatzen dena, bozgoragailu batzuk ditu alboetan eta motore txiki bat. Sentsorea aktibatzean bozgoragailuek bezeroak aukeratutako musika jartzen dute eta motoreak kotxea pixka bat kulunkatzen du.

